

MIGUEL DE UNAMUNO XXII. SARIA
BILBOKO UDALA



**HERIOTZARI
AURREZ AURRE BEGIRA**
OSKAR GAZTELU

erein

Heriotzari aurrez aurre begira

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Bilboko Udalak antolatu zuen Miguel de Unamuno XXII. Saiakera Lehiaketaren 2021eko deialdiaren euskarazko saria jasotako du. Liburu hau Bilboko Udalak argitaratua izan da.

1. argitalpena: 2022ko irailean

Azaleko irudia:

Nekane Barjola

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Oskar Gaztelu

© EREIN. Donostia 2022

ISBN: 978-84-9109-843-0

L. G.: D 878-2022

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-posta: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008

e-posta: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Heriotzari aurrez aurre begira

Oskar Gaztelu

Bilboko Udaleko Miguel de Unamuno XXII. Saria



AURKIBIDEA

<i>Eskerrak</i>	9
1. SARRERA	15
2. LEHENENGO ESPERIENTZIA	25
Tristezia	25
Amaren baserria (h)uz(s)ten	35
3. HERIOTZAREN INGURUKO ANTZINAKO	
LIBURU BATZUK	41
Heriotzaren liburu tibetarra	41
Egiptoarren hildakoen liburua	47
Ars Moriendi	51
4. HIL OSTEKO ZEREMONIAK	53
Tana Torajak, Indonesia	53
Sintoismoa eta Kotsuage, Japonia	56
Cullowhee: konposta egiteko gorpuak	58
Famadihana, Madagaskar	62
Euskal Herria	64
Hileta-erritualen gaineko hausnarketa	71
5. HERIOTZAREN AURREAN PENTSAMENDU	
ETA JARRERA EZBERDIN BATZUK	75
Biozentrismoa	75
Kriokontserbazioa	77
Transhumanismoa	78
Heriotza heriotzari	81
Death cafe	82
Erditzea eta heriotza	85
6. BIGARREN ESPERIENTZIA	89
Nire erara	89
Dolua	95

7. HILTZEN LAGUNTZEN	99
Elisabeth Kübler-Ross: tanatologia eta doluaren etapak	99
Kathleen Dowling Singh: kaosa, amore ematea eta transzendentzia	105
Monika Renz: trantsizio aurrekoa, trantsizioa eta trantsizio ondokoa	110
Elizabeth eta Peter Fenwick: hiltzeko artea	111
8. HERIOTZAK ERAGINDAKO LITERATURA	115
Irvine Yalom: psikoterapia existentziala	115
William Styron: Iluntasun ikusgarria	122
Joan Didion: Bikotekidearen dolua. Pentsamendu magikoaren urtea	126
Isabel Allende, Paula: alabaren heriotzaren gaineko katarsia	131
Osho: hiltzeko artea	135
Miguel Unamunokoa	139
Xabier Lete: egunsentiaren esku izoztuak	153
9. HIRUGARREN ESPERIENTZIA:	
GERNIKAKO AUTOBUSA	159
10. EPILOGOA	167
<i>Bibliografia</i>	171
<i>Epaimahaiaren akta</i>	175

ESKERRAK

Nire amari eta

Laurogei urtetik gorako aitite-amomei:

Koronavirusaren aurrean laurogei urteko norbaiten larruan jartzen banaiz, badakit ez dutela aitortuko sentitzen dutena.

Ia inoiz ez dute halakorik egin, gerraostean edo diktaduran txikitatik ipurdia estutu eta aurrera ostikoka bizi behar ziren. Belaunaldi gutxi izan dira hain neketsu, langile, abduzituak mundu bat berreraikitzen.

Ez zuten atzera begiratu nahi, ez zuten atzera begiratu behar, bestela dena hondatzen zen. Bihotza hain zauritua, mehatxatua eta nahikoa itxia, min gehiago egin ez ziezaieten, kontsolatu eta hustu egiten ziren helburu baten bila: etorkizuna.

Haiena ez, haiena bizirik irautera baldintzatuta zegoen; hurrengoan etorkizuna, seme-alabak, laino artean amets bat bezala. Haiek ongi sumatzen zuten hura ez zela euren patua.

Berandu iritsi ziren, berreraikitzea eta ekaitzari eustea tokatzen zitzairen. Unibertsitatera joatea, nolabaiteko lasaitasunez bizitzea hurrengo belaunaldiko kontua zen.

Ziurtatu egin behar zuten hurrengoek jada ez dituztela oinazea, gosea, askatasun falta eta eskolako krudelkeria sufrituko.

Transmisoreak ziren.

Bazekiten gure ikasketak beste bizitza baterako zubia izan zitezkeela.

Ahal zuten bezala egiten zuten, zakartasunez, exigentzi-
tiaz, batzuetan etsipenez.

Mamuak eta haien umearoaren munstroak ume handien
bihotzetan baizik ez ziren ibiltzen. Orainari hozka egin be-
har zitzaion iraganak hozka ez egiteko.

Munduan zehar bidaietan ibiltzeko aukerarik izan ez
zuen belaunaldia izan zen, ezta laurogeiko edo laurogeita ha-
marreko hamarkada gozoak bizi izan zituen ere, moderni-
tate lasaiago batean.

65 urterekin atsedean hartzea espero zuten. Hala ere,
gure seme-alaben aitona-amonenak egin dituzte, euren erara
penatzen jarraitu dute, ez dakitelako besterik egiten.

Haien azalean jartzen banaiz, egunero tragedian irabaz-
ten duen zientzia fikziozko istorio hau ikusten badut, bizi-
tzaren benetako segada bat sentitzen dut.

Euren gorputzean jartzen banaiz bidezko energiarekin,
ingurura begiratzen badut, konturatzen naiz ez dutela ezer
ulertzen.

Beldur dira eta isilduko dira. Bizitza osoan egin duten
bezala.

Ez dute uzten sentitzen duten segada adierazten, ezta
amorrua ere, gutxi geratzen zaielako hiltzeko.

Hurrengora pasatzen irakatsi digute, besterik gabe, hu-
rrengoa.

Baina bai, hurrengoei berreraiki eta oparitu diguten
munduak huts egiten die.

Haien hauskortasunik handienean zainduak izateko
duten eskubidea desagertzen hasten da. Ez dute gehiagorako
balio.

Hondoratu egin dira. Pikutara doaz.

Agian salbatuko dira.

Haien lagun eta garaikide asko, ez.

Baina inork ez die libratuko jazarpen honetatik, eguneroko mehatxu honetatik, ezer ez garela erakustetik.

Bizitza osoa mehatxupean bizi izan dute.

Gerragatik, erlijioagatik, hizkuntzagatik, eskolagatik, erregimenagatik, diktaduragatik, krisi ekonomikoengatik, hil bukaerara elikatu beharreko hainbat ahorekin iristeagatik, gaixotasunagatik minbizia edo bihotzekoa zelako, haiena edo haien senideena.

Bakean hil ahal izatea besterik ez dute nahi, eta adurra dariela bilobei begiratzen jarraitzea ahalik eta denbora gehien, zergatia ondo jakin ez arren.

Jainkoek maite duten hura gazte hiltzen da.

MENANDRO

Hil dela uste duzun horrek, bidean aurreratu besterik ez zaitu egin.

SENEKA

Ez dago heriotza naturalik. Gizakiari gertatzen zaion ezer ez da naturala, haren presentzia hutsak mundua zalantzan jartzen baitu. Gizakiak hilkorak dira, heriotza oro istripu bat da, eta ezagutu eta onartzen badute ere, bidegabeko indarkeria da.

Simone de BEAUVOIR

Lorategiko zuhaitz guztietatik jan dezakezu gustura geratu arte. Baina ongiaren eta gaizkiaren ezagutzaren zuhaitzari dagokionez, ez duzu hartatik jan behar, hartatik jaten duzun egunean positiboki hilko baitzara.

Genesisia 2: 16-17

Kontzientzia osoz hiltzen dira gaixoak. Badakizu zer den txarrena? Gaixoak bakarrik nola hiltzen diren ikustea. Entzutea nola eskatzen duten seme-alabei eta bilobei agur esatea. Gaur gauean amona batek azkenekoz ikusi nahi zuen. Orduan telefonoa atera eta bideo-dei baten bidez deitu nion. Agur esan zioten elkarri, eta handik gutxira emakumeak utzi egin gintuen. Orain bideo-dei zerrenda luzea daukat. Nik agurreko zerrenda deitzen diot.

Francesca CORTELLARO,
Milango «San Carlo Borromeo»
ospitaleko larrialdietako departamentu burua.

1

Sarrera

2020. urtea. Koronabirusaren urtea. Heriotzaren beldur kolektiboaren urtea. Bizitza honetan dagoen ziurtasun bakarrenetakoa da. Aurten heriotza gehiago agertzen da gizateria osoan. Zaurgarri sentiarazten gaitu. Baina, zer da heriotza? Nola hiltzen gara? Benetan al da heriotza?

Lan honen helburua heriotzari buruzko teoretara hurbiltzea da, gure inguruan nagusi diren erlijioek argudiatzen dutena alde batera utzita.

Bizitzako hainbat esperientzia bildu ditut, batzuetan gertuko senideen heriotza izan dira sormen-iturri, idazle batzuen kasuan bezala. Beste testigantza batzuk heriotzatik gertu dauden jendeekin lan egiten duten pertsonen esperientziak izan dira, eta hauen ondorioak ere azaltzen ditut; baita heriotzarekin izututa dauden pertsonekin era terapeutikoan lan egiten duten adituena ere. Heriotza hurbi-letik bizi izan duten senideen benetako esperientziak ere gehitu ditut gainera, neureak besteak beste, maite izan ditudanan agur-prozesuenak. Saiakera honekin nire helburua heriotzaz askatasunez hitz egiteko espazioak irekitzea da, eta horrek dakarrena, bakoitzak dituen sinesmen erlijioso, espiritual edo ideologikoak alde batera utzita. Denok dugu

zerbait kontatzeko, izan ere gertaera horri hitzak jartzen zaizkionean bakoitzaren barne bakera hurbiltzen gara.

Zergatik diogu beldurra heriotzari? Ba al dago bizitzaren eta heriotzaren artean banaketarik? Zergatik egiten dugu banaketa hori? Banaketa hori benetakoa al da, edo gure buruak egindakoa da?

Bizitzaz hitz egiten dugunean jarraipen bat duen prozesu baten gainean ari gara. Prozesu horretan identifikazio bat dago: Ni eta nire etxea, ni eta nire bikotea, ni eta nire lana, ni eta nik izan ditudan esperientziak, besteak beste. Memoriak lotzen duen prozesu jarraitu bat da bizitza: gure borrokak, maitasunak, lorpenak, esperientziak eta gure hondamendiak. Hori da, gure ustez, bizitza. Eta heriotzak eten egiten du ibilbide hori. Gure buruarentzat, bizitzaren kontrakoa da heriotza. Eta horrek beldurra ematen du. Horren aurrean, gizakiok bilatzen hasten gara nolabaiteko erlazio jasangarri bat heriotzaren eta bizitzaren artean. Berraragizatzea bide bat da, sinesmen bat. Berraragizatzearen bidez jarraipen bat ematen diogu gure bizitzari. Horrela, ezagunaren eta ez ezagunaren artean erlazio bat aurkitzen dugu. Iraganaren eta etorkizunaren artean zurbia eraikitzen dugu.

Posible da heriotza ezagutzea bizi garen bitartean? Hori lortzea badugu?, gure arazoak amaituko lirateke. Baina hori ez da posible. Ezezaguna onartu beharrean gaude.

Bizi garen bitartean ezezaguna esperimentatu ezin dugulako da, ezezagunaren beldur garelako. Gure borroka hor datza, beraz, ezagutzen dugunaren eta ezezagunaren, heriotza deitzen dugun horren emaitza garen artean harreman bat ezartzean. Eta egon al daiteke erlaziorik iraganaren eta gogamenak bururatzetik ez duen zerbaiten artean, heriotza

deitzen diogun horren artean? Zergatik bereizten ditugu bi gauzak? Ez ote da gure gogamenak ezagunaren, jarraituaren esferan bakarrik funtziona dezakeelako? Gizakiak pentsalari gisa bakarrik ezagutzen du bere burua, zorigaitzaren, atseginaren, maitasunaren, afektuaren, esperientzia-mota desberdinen oroitzapen jakin batzuk dituen aktore gisa; gizakiak bere burua etengabeko zerizan gisa bakarrik ezagutzen du, bestela ez bailuke bere buruaren, zerbait izatearen oroitzapenik izango. Baina «zerbait» hori bere bukaerara iristen denean, «hildako» deitzen dugunera, ezezagunaren beldurra sortzen da. Beraz, ezezaguna dena ezagunera erakarri nahi dugu, eta gure ahalegin guztia ezezaguna denari jarraipena ematean datza. Hau da, ez dugu bizitza ezagutu nahi, heriotza barne hartuko duen bizitza hori; nola jarraitu jakin nahi dugu, eta ez amaierara iritsi. Ez dugu bizitzaz eta heriotzaz jakin nahi, baizik eta nola jarraitu, bukatu gabe.

Gure inguruko norbaiten heriotzak min ezezagun bat ekarriko digu. Doluaren atal bat da min hori. Ados egon behar da sentitzen dugun minarekin. Eta bizi dezagun, ez dezagun haren aurka gehiegi egin. Minak prentsa txarra du, min egiten duelako, baina sendagarria da eta sufri-menduan, biktimismoan, erresuminean, depresioan, mendekuan, perfekzionismoan kokatzea galarazten digu. Nor da gai bizitza baliotsu batek mina baztertu behar duela pentsatzeko? Gure atal bat da, eta ezinbestean bisitatuko gaitu. Minak erre eta irentsi egiten gaitu, eta horrela, bazuetan, hustu eta berpiztu egiten gaitu.

Hildako pertsona bat ikusten dugunean jada hor ez dagoela sentitzen dugu, baina aurreko segundora arte bizia ematen zion hura, orduan, non dago? Ikasi genuen

bezala, energia ez bada sortzen edo suntsitzen, eraldatu baizik, zer gertatzen da heriotzan gorputzari bizia ematen zion energia horrekin? Zertan eraldatzen da?

Orain arteko medikuntzaren ustea izan da kontzientzia garunaren produktu bat dela, eta, ondorioz, bere funtzioak desagertzean desagertu egiten dela. Baina galdera batzuk sortzen dira: gure kontzientzia gure burmuinean al dago? Gorputz bat gara ala gorputz bat dugu? Zer gertatzen da pertsona batzuen esperientzia horiekin, beren burmuinak oxigenorik gabe gelditzen diren uneetan heriotzatik hurbil sentitzen direnean? Burmuinari eta heriotzari buruzko ezagutza medikoa desmuntatzen dute heriotzatik gertuko esperientziak (HGE). Izan ere, medikuntzak eta biologiak onartutako heriotzaren kontzeptu zientifikoa osatu gabea da, eta ikerketa berrien argitan berrikusi beharrekoa.

Kontsumo, ekoizpen eta eraginkortasuna bezalako «balio»etan zentratutako gizarte batek nahitaez arbuia behar du akzioa, errendimendua eta bizitasuna ez den guztia. Heriotzak, hiltzeak, egungo balio horiek guztiak suntsitzea eta ukatzea dakar. Horregatik, heriotza gaur egun «anti balore» bat da.

Gaur egungo gizakiak naturaren indarren gainean duen nagusitasunaren porrot gisa ikusten du heriotza. «Gizon teknifikatuak» ia dena kontrolatu eta manipulatu dezake, baina babesik gabe dago heriotzaren gertaera ukaezinaren aurrean. Hala, heriotzak eta hiltzeak ez dute lekurik gizarte industrializatueta, ez dute eraginik sistema produktiboetan. Heriotza, agonia eta zahartzaroa teknologia biomediko modernoaren ezintasunaren irudikapentzat hartzen dira.

Antzinako tradizio jakintsuetatik zoriontasun modernoaren psikologiara, erlijio handiek, Konfuzioren jakinduria edo filosofo estoikoek asko esan izan dute pertsonak bizitzan zehar izan duen hazkunderaz, jakinduria lortzeko modu gisa. Tradizio horiek bi zatitan banatzen dute giza bizitza. Bizitzaren lehen zatian finkatzen dira gure nortasunaren eta gure heldutasunean izango garen pertsonaren oinarriak. Bizitzaren lehen fasea nahitaez egozentrikoa da. Dena norberari buruzkoa da. Zer naiz ni? Zer ordezkatzan dut? Zeintzuk dira nire dohainak, nire trebetasunak, nire indarguneak eta nire gaitasunak? Ezagutzen al ditu munduak nire gaitasunak? Agian jarrera kritiko bat egongo da nire akatsak eta nire indarguneak antzemateko, baina horrek ziurtatu besterik ez du egiten ezkutatu egin ditzakedala eta ezkutatu egin ditzakedala besteen epaiketa saihesteko. Horrela, gure bizitzaren lehen zatian zehar, denok identifikatzen gara izan uste dugun pertsonarekin.

Bizitzaren bigarren zatia jakinduria lortzeko garaia da. Pertsona bakoitzak bere erara banatzen ditu fase bi hauek. Pertsona asko bizitzaren urte gehienak lehen fasean igarotzen dituzte. Beste batzuek trantsizio goiztiarra bizi dezakete, eta hori esperientzia pertsonal mingarri batekin batera etorri ohi da, galera bat bezala, edo gaixotasun sendaezin bat pairatzen dutela jakiten dutenean; heriotza gerturatzen dela eta horrek berekin dakarrela jakitea: familiarra eta maitatua gertatzen zaien guztiaren amaiera. Jakinduria esploratzen duten tradizio guztiek deskribatzen dituzte mugimendu hauek. Horretarako lehen urratsa errukiaren sentimendua da. Arreta-gunea «ni»tik «denok»era mugitzen da. Horrek bere baitan hartzen ditu

geure buruarekiko eskuzabaltasun-egintzak, eta akatsak aitortzeko eta barkatzeko gure gaitasuna ere bai. Beren bizitzaren bigarren zatian eraldatzen direnek besteen akatsak barkatzen dituzte.

Kultura guztietan herri ipuinak daude, non hilezkortasuna bilatzen duen norbaitek gaizki bukatzen duen. Edo izakiak bakardadera kondenatuak dauden beren hilezkortasunaren erruz. Bizitza normala izateko hilezkortasuna sakrifikatzen duten hilezkoz ere hitz egiten da, gizaki baten maitasunagatik. Zibilizazio oso batek partekatutako jakintza herri kontakizunetan islatzen da, non hilezkortasuna pozoitutako kaliza gisa agertzen den. Are gehiago, antzinako jakituriak beharrezko osagaitzat hartzen du heriotza. Ziurgabetasunarekin eta etsipenarekin amaitzen den fasea da. Bizi-arazoak atzean uzteko promesa bat da heriotza, eta eguneroko borroka errepikatuaren amaiera.

Homeroren *Odisean* Calipsok hilezkortasuna eskaini zion Ulisesi, berarekin geratzen baldin bazen. Ulisesek uko egin zion eskaintzari, nahiago zuelako Itakara itzuli, Peneloperekin itzuli. Bizitzaren aldeko apustua egin zuen.

XX. mendearen erdialdera arte, mendebaldeko gure kulturaren gizakiaren tabu handia sexua zen; ondoren heriotza izan zen, eta gaur egun bizirik dirautenengan heriotzaren ondorengo egoera dela esatera ausartuko nintzateke: dolua.

Hizkuntzan bertan islatzen dugu heriotzari diogun beldurra, hiltzeak dakarren errealitate larriaren sinonimoak edo baliokideak erabiltzean: «Hil da», «Bizitza hobera pasatu da», «Atsedean hartu bakean», eta abar. Horiek

dira une horietan erabiltzen ditugun esaldietako batzuk. Senide baten heriotzagatiko dolua eta atsekabea ere ez dira beste garai batzuetan bezain onartuak.

Hiltzeko modu ideala aldatu da: lehen, modu konzientean, argian eta laguntza espiritual eta sakramentalarekin gertatzea nahi zen; gaur, heriotza azkarra eta sufri-mendurik gabea nahi da («Asko sufritu al zuen?», «Jakin al zuen?»).

Maiz, gaixo terminal batek baieztatzen duenean, «Hilko naiz», senideek erantzun ohi dute: «Denok hil behar dugu; gu ere hilko gara». Baina erantzun hori ez da egiazkoa, gaixoak «hiltzeaz» hitz egiten baitu (hiltzen ari da), eta familiakoek bizitza osoan irauten duen prozesu bati buruz erantzuten dute.

Freudek (1915), *Gerrari eta heriotzari buruzko gaur egungo kontsiderazioetan*, honako hau adierazten du: «Heriotzaz hitz egiteko modu bakarra heriotza ukatzea da»; nahiz eta lan horren amaieran hau ondorioztatzen duen: «Bizitza jasan nahi baduzu, presta zaitetz heriotzarako». Gizakia existitzen denetik, anbibalentziatzko, desiratzko, arbuiozko, maitasunezko eta gorrotozko jarrera bat ikusi da heriotzarekiko; hala ere, gizaki primitiboak bere animismoan irtenbideren bat aurkitu zuen. Gaur egungo gizakia, ordea, anbibalentzia horrek errura eta, ondorioz, neurosira eramaten du.

Heriotzaren ukazio emozionalak hainbat jantzi izan ditzake: kezka, antsietatea eta beldurra. Eta erantzun ohikoenak hauexek dira: hiperaktibitatea (lanaren gurtza), nartzisismoa (bere buruaren gurtza) edo konfiantza itsua zientzian, heriotza saihesteko (teknika medikoaren gurtza).

Heriotza da partekatu ezin dugun bizipen bakarra. Baina egia da, halaber, bizitzako une garrantzitsu hau batez ere bi egoeraren arabera dela:

Bizi izan da? Eta nola sentitu da inguruaren aurrean? Hau da, bakean hiltzea ez da inprobisatzen, ezpabere bizitza garatu den moduaren arabera ematen da prozesu hau. Interesak, balioak eta sentimenduak «ondo hiltzea» laguntzen edo oztopatzen ari dira. Baina hiltzeko unea nola egiten den ere (etxean, ospitalean, sufrimenduz, argi eta abar), horrek «heriotza duina» bultzatuko edo oztopatuko du.

Atsekabetuta hiltzea, Cristiane Jomain idazlearen arabera, bi poloren artean garatuko litzateke: bakardadean hiltzearen zoritxarra eta bizitzeko beharrezkoa den bakardade-espazio bat ez izatearen zoritxarra. Lehenengo kasuan, gure kulturaren, gure senidearen heriotza ukatzeko jorera dugu, konturatuko ez delako uste faltsuan; baina agian bakarrik sentitzen da, hurbilekoekin heriotzaren aurrean bere beldurra partekatu ezin duelako. Hilzorian dagoenaren bigarren beharra agur esan ahal izateko espazio psikologiko bat izatea da, traumarik gabe eta baita estutasunik gabe ere. Alde horretatik, senideen eta zain-tzaileen gehiegizko presentziak zaildu egingo luke «gustura hiltzeko» prozesua. Hilzorian dagoenaren hirugarren behar bat gehitu beharko litzaioke: alferrikako sufrimendurik eza. Ospitaletan, batzuetan, helburu nagusia izaten da gaixoei ahalik eta gehien bizirik eustea. Horrek lortzen duen gauza bakarra da landare moduko bizitza bat izatea.

Hiru baldintza horiek ongi burutuz gero, orduan bai esan genezake «gustura gertatutako heriotza» izan dela.

Zer espero den ez dakigunez, jendeak telebistan, zinemari, eleberrietan, sare sozialetan edo albisteetan ikusten duena sinesten du.

Agoniaren eta heriotzaren bertsio horiek, askotan sentsazionalismora jotzen dutenak eta aldi berean arindu egiten direnak, bere garaian esperientzia komun bat zena ordezkatu dute: hiltzerian dauden pertsonak inguruetatik behatzea, heriotza beren patroiak ezagutzeko nahikoa hurbiletik ikustea, energia galtzearen mugen barruan ondo bizi daitekeela ulertzea eta ohean gertatzen diren faseekin nolabaiteko hurbiltasuna garatzea. Jakinduria aberats hori galdu egin da XX. mendearen bigarren erdian. Aitortu behar da medikuntzan, teknologian eta tratamenduetan egindako aurrerapenek, medikuntza prebentiboak eta beste aurrerapen batzuek bizi-itzaropena nabarmen luzatzea eragin dutela. Eta hori ona da.

Heriotza atzeratu egiten da, baina, oraingoz, ezin da saihestu. Literatura asko irakurtzen eta idazten da horrela izateko aukerari buruz. Orduan, ez al genuke hobeto egingo berari buruz informatzen saiatuta? Hilkortasun tasak ehuneko ehuna izaten jarraitzen du, eta gure azken egunetako eta hiltzen garen moduaren eredia ez da aldatu. Gauza desberdin bakarra da galdu egin dugula bere garaian prozesu horrekin izan genuen adiskidetasuna, bai eta iraganeko garaietan hain zerbitzu ona eman zigun hiztegia eta protokoloa ere, non heriotza saihetsezina zela ulertzen baitzen.